



HAURTZAROA ETA INGURUMENA



INMA ikerketako parte-hartzaile estimatuak:

Hirugarren buletina prestatu dugu, zuei INMA-Gipuzkoa ikerketako emaitzen berri emateko. Eskerrik asko guztioi, berriro ere, zuen laguntza eskuzabalagatik eta ikerketaren alde erakusten duzuen konfiantzagatik.

Ba dira 2 urte INMA-Gipuzkoa ikerketa abian jarri zela. Aurtengo otsailean sartu da 628. parte-hartzailea, eta horrekin bukatutzat eman dugu erreklutamenduko fasea. Aurreikuspenaren arabera, INMAko azken jaioberria abuztuan izango da.

Buletin honek zera du helburu: batetik, INMAko jaioberrien soslaiak deskribatzea; bestetik, ume jaioberri horiei buruzko informazio nagusia, jaiotzetik 14 hilabete artekoa, azaltzea.

ZEIN UDALETAKOAK DIRA INMAKO EMAKUMEAK?

Hurrengo taulan erakusten da udalerriz udalerriz zenbat emakume dauden erreklutatuta 2008ko maiatzean.

Emakumeak-haurrak-INMA

Altzaga	2	Mutiloa	4
Ataun	19	Olaberria	3
Azkoitia	72	Ordizia	43
Azpeitia	70	Ormaiztegi	10
Beasain	87	Segura	14
Ezkiotxaso	1	Urrestila	2
Idiazabal	15	Urretxu	69
Itsasondo	5	Zaldibi	12
Lazkao	44	Zegama	9
Legazpi	59	Zumarraga	88

HAURREI ETA EUREN INGURUARI BURUZKO DATUEN BILKETA

2008ko ekainean, ume jaioberriak 586 dira: %53 mutiko eta %47 neska.

INMA ikerketaren bitartez, dakizuen bezala, ingurumeneko kutsatzaileen aurreko esposizioak zer inpaktu egiten duen neurtzea eta dietak fetuaren eta haurraren hazkuntzan, osasunean eta garapenean zer eragin duen ebaluatzea bilatzen da. Horregatik, oso garrantzitsua da ama haurdunaren eta umearen datuak ondo jasotzea.

INMAko haurren gaineko informazio-bilketa honako etapa hauetan egiten da:

1) Jaiotzen denean:

- Azterketa fisikoa eta neurketa antropometrikoak (pisua, altuera, etc.)
- Neurogarapenaren testa (Dubowitz-en testa).
- Lagin biologikoen bilketa (oritza, haurraren ilea, zilbor-hesteko odola, karena).

2) 14 hilabete dituenean:

- Azterketa fisikoa eta neurketa antropometrikoak (pisua, altuera, etc.)
- Infekzioei, jate-maiztasunari eta ingurumenari buruzko galdesortak
- Neurogarapenaren testa (Bayley-ren testa).
- Listu-laginaren bilketa.

3) 2 urte dituenean:

- Infekzioei, jate-maiztasunari eta ingurumenari buruzko galdesortak.

NEUROGARAPENAREN TESTA, JAIOTZEN DENEAN

Dubowitz-en testa

Jaioberriaren jokaera aztertzen da. Horri esker, haurraren egoera neurologikoa kuantitatiboki ezagutzea lortzen da.

NEUROGARAPENAREN TESTA, 14 HILABETEREkin

Bayley-ren testa

Haurraren garapenaren eskala bat da, eta zera ebaluatzen du umearen bizitzako lehenengo bi urte eta erdietan: hizkuntza, ikusmen-arazoei aurre egiteko gaitasuna, jokaera eta mugitzeko trebetasun fin eta traketsak. Test honetatik ateratako emaitzek, batzuetan, neurri prebentiboak hartzeko aukera ematen dute.

AIREAREN KALITATEA

INMA-Gipuzkoako ikerketaren arloan industria eta trafikoa dira airearen kutsadura-iturri nagusiak.



Airearen kalitatea neurtzeko, kaptazio-tresnak erabili dira, eta tresna horiek biztanle gehieneko udaletan daude kokatuta: Azkoitia, Azpeitia, Beasain-Ordizia, Legazpia, Olaberria eta Zumarraga-Urretxu. Ataungo airearen kalitateari buruzko informazioa ere bildu da, eta udal hori hartu da biztanle gutxi dituzten eta kutsadura-iturrietatik libre dauden udalen ordezkari.

Orain hurrengo buletinean, 2006an udalez udal erregistratutako partikulen batez besteko mailak ($PM_{2.5}$) aurkeztu genituen. Taula honetan, 2006ko eta 2007ko batez besteko mailak jaso dira:


$PM_{2.5}$ partikulen batez besteko balorea, urtez urte eta udalez udal

2007an partikula-maila ($PM_{2.5}$) nabarmen jaitsi da udalerri guztietan, eta inon baino gehiago Azpeitian eta Azkoitian. Bi udalerri hauetan partikula-maila jaitea eta, ondorioz, airearen kalitatea askoz hobetzea arrazoi jakin batek ekarri du: Azkoitiko galdategia tokiz aldatzeak. 2007an udalerri bakar batek ere ez du gainditu 2008 Zuzentarauak ezartzen duen legezko muga ($25 \mu g/m^3$).

Partikuletan honako metal hauek neurtu dira: Arsenikoa, Kadmioa, Merkurioa, Kromoa, Burdina, Nikela, Kobre, Zinka, Beruna eta Manganesoa. Udalerri batean ere ez da gainditu lege ezarritako mugako balorerik.

Partikula eta metalez gainera, hiru kanpaina egin dira, NO_2 , konposatu organiko hegazkorak (bentzenoa, toluenoa, etc.) eta ozonoa neurtzeko. Lehenengo bi kanpainetan ez zen nabaritu balore alturik kutsatzaile horietan.

Azkeneko kanpainan, aurtengo maiatzean, 116 kaptadore ipini dira (horietako 31, haur-parkeetatik eta haurtzaindegietatik gertu). Hauen emaitzak oraindik ez ditugu eskura.



Ikerketako emakumerik gehienek (%73) edaten duten ura udal-sareak tratamenduko estazioetik hartutakoa izaten da; %23k edaten dutena, botilakoa; %3rena, hartune propioak; eta %1ek nahastu egin ohi du sareko ura eta botilakoa. Emakumeen %28 igerileku batean bainatu da haurdun egonda.

Aurreko aldiaren bezala, uretan honako konposatu hauek aztertu dira: trihalometanoak (THM), azido haloazetikoak (AHA), nitratoak, beruna eta arsenikoa. Emaitzak lehenago lortutakoen antzekoak dira, eta udal bakar batean ere ez dira gainditu araudiak konposatu hauentzat ezarritako dituen erreferentziako baloreak.

Balore hauek, bestalde, baxuak dira INMA ikerketako beste gune batzuetan (Valentzia, Sabadell eta Granada) nabaritutakoen aldean.

INFORMAZIO GEHIAGO:
Aitana Lertxundi: alertxundi@ej-gv.es

PROIEKTUAREN FINANTZAKETA:

- Udaletxeak: Azkoitia, Azpeitia, Beasain, Legazpi, Urretxu eta Zumarraga
- KUTXA
- Ikerkuntza Sanitarioko Fondoa. Zientzia eta Ikerketako Ministerioa
- Osasun Saila. Eusko Jaurlaritza
- Gipuzkoako Foru Aldundia

*Taulan aipatzen ez diren udalentzat, Ataunek emandako baloreen antzeko estimazioa egiten da.

UREN KALITATEA

